

Krisi ekonomiko-industriala Nafarroan?

UPNren gobernuaren esanetan, ez dago krisirik Nafarroan. Iturri berberak dioenez, hazkunde ekonomikoak %4a urratzen du eta dauden 12.000 enpresetatik lauek baino ez dute jasaten enplegu-erregulazioko espediente edo greben eragina. Urte hasieran itxiera eta deslokalizazioak jasandako enpresez ari da: Mepamsa, Caucho Metal, Inquinsa eta BSH-Lizarra. Errealitatea ordea, tematia da. Enpresa horiei orain beste batzuk gehitu behar zaizkie: Solano, bere garaian babes publikoa izan zuen Onena, Sysmo (egindako grebak Volkswageni eragin dio), Maier, Drahtzug Stein multinazionala... Horietan beste ehunka langile arriskuan daude. Egia da, gaur egun Nafarroan ezin daitekeela kinka ekonomiko-industrialaz hitz egin. Monolabore industrialean oinarritutako eredu ekonomiko eta industrialaren krisia dago. Honek ibilgailu-industrialian eta nekazaritzatik datozen jakien arloan du euskarria, beraz, multinazionalen mendekotasunean. Morrontzak, munduko beste leku batzuetan gertatzen den bezala, Nafarroako hainbat eskualderen desindustrializazioa dakar. Multinazionalak, jakina den bezala, basatiak dira. Ez dute bihotzik. Deslokalizazioaren politika erabiltzen dute ondorio soziolaboralak kontuan hartu gabe. Negozioa besterik ez dute bilatzen. Ondorioz, Nafarroako ekonomiak oinarri ahul eta arriskutsuak ditu. Etorkizunean dibertsifikazio industrial handiagoaren aldeko apustua egin beharko lukete bai gobernuak baita eragile ekonomiko eta sozial nafarrek ere.

Juan Mari Arregi

Soziolinguistikaren Top Ten-a

RICARDO GOMEZEK FiloBlogia blogean duela pare bat urte egin zuen Euskal Filologiarako 10 webgune interesgarrien zerrenda. Tankera horretara egin du Txerra Rodriguezek Garaigoikoa blogean, soziolinguistikaren alorrean. “(Euskal) soziolinguista batek (horrelakorik existitzen al da?) galdu ezin dituen 10 webguneen zerrenda” egin du Rodriguezek. Hona Top Tena: Soziolinguistika Klusterraren webgunea, erabili.com, Hiznet-en webgunea, Hizkunea, Eusko Jaurlaritzako HPSren webgunea, Buruxkak, Inguma, Tiraka, Karrajua eta Sortzeke dagoena –webgune horietan eta beste batzuetan sakabanatuta dagoen informazioa barnebilduko duen euskarazko soziolinguistikari buruzko webgune osoa eta osatua–.

Hedabide kontsumoa Iparraldean

EUSKARAREN Erakunde Publikoak (EPP) telebista eta irratik kontsumoari buruzko inkesta egin du Ipar Euskal Herrian. Irratiari dagokionez, entzuleen %11k erregulariki entzuten ditu Euskal Irratiak (Gure Irratia, Irulegi Irratia, Xiberoko Boza eta Antxeta Irratia), eta %22k noizean behin. Euskadi Irratia %5ek entzuten dute erregulariki, eta %10ek noizean behin. Herritarren %11k ikusten du EITB.

BAHEA

Juan Ignacio Perez Iglesias, EHUko errektoreak Berrian esanak: “Egun enborrezko kredituen %85 inguru eskaintzen dira euskaraz, eta hautazko kredituen eskaintza zabal samarra da, nahiz oso desorekatua dagoen ezagutza arloaren arabera. Arazo larrienak ikasketa teknikoekin eta medikuntzako zati klinikoarekin ditugu. Ez da borondate falta, ez eta baliabide falta ere. Lehiaketa publikora irakasle lanpostuak ateratzeko deialdia egiten dugunean, askotan ez da inor aurkezten ingeniarietarako lanpostuetara. Bestalde, gutxieneko kalitatea eskatu behar dugu, ez bainago prest euskaraz ematen duguna gaztelaniaz ematen duguna baino kalitate apalagokoa izateko”.

BATEKMILA
EUSKAL
MUNDUAK

Erakusketa

Irailaren 19tik azaroaren 17ra

www.batekmila.com



kulturunea

Koldo Mitxelena Kulturunea
Ganbara aretoa
Urdaneta 9

Donostia



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE



Kantxatik

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren aldizkaria
 Pilotazale guztien aldizkaria
 Euskal pilotari buruzko zure aldizkaria, euskara hutsean

10 euroren truke, aldizkariaren 4 zenbaki jasoko dituzu zuzenean zure etxean.
 Harpidedun egin nahi baduzu, ondorengo datuak bete eta orri hau Gipuzkoako Euskal
 Pilota Federaziora bidali

(Anoeta pasealekua, 5. Kirol Etxea. 20012-Donostia; leire.gepe@gmail.com).

DERRIGORREZ BETE BEHARREKO DATUAK (aldizkaria etxera bidali ahal izateko)

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea

Herria

KOBRAKETARAKO ETA HARREMANETARAKO DATU GEHIAGO

Kontu korrontea (Zure kontu korrontetik kobratzea nahi baduzu)

GEPE-ren kontu korrontea / Dirua sartu eta ordainagiria orri erantsi) 2101 0009 82 0006534986

Telefono zenbakia

E-posta

Jaiotze data



Gipuzkoako Foru Aldundia

